

Euskal Herria Bildu Federazioaren Kontrataziorako Barne-jarraibideak

Sarrera

Euskal Herria Bildu alderdi politikoen federazioak (aurrerantzean, EH Bildu) kontrataziorako bere barne-araubidea ezarri du idazki honen bidez, alderdi politikoen ekonomia- eta finantza-jarduera kontrolatzeari buruzko martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko. Lege organiko horren bidez, alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoa (aurrerantzean, APFLO) aldatu zen, eta beste idazketa bat eman zitzaion Hamahirugarren Xedapen Gehigarriari. Xedapen horrek, alderdi politikoen kontratazio-araubideari dagokionez, honako hau aurreikusten du:

“Alderdi politikoen kontratazio-prozedurak honako printzipio hauetan oinarrituko dira: publikitatea, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentziasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, guztia ere borondatearen autonomiarekiko errespetuari eta, hala dagokionean, konfidentziasunari kalterik egin gabe. Alderdi politikoak barneko hainbat jarraibide onartu beharko ditu kontratazioaren arloan; horiek aurreko zenbakian aurreikusitakora egokituko dira eta, onartu aurretik, aholkularitza juridikoaz arduratzen den organoak horiei buruzko txostena egin beharko du. Jarraibide horiek alderdi politikoen webgunean argitaratu beharko dira”.

Era berean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL), hauxe xedatzen du: “alderdi politikoez, alderdi politikoen finantzaketari buruzko 8/2007 Lege Organikoaren 1. artikuluan zehaztutakoaren ildotik (...), artikuluhonon 3. zenbakiko d) letraren arabera botere esleitzailerik izateko baldintzak betetzen dituztenean, eta erregulazio harmonizatuaren pean dauden kontratuei dagokienez, honako printzipio hauen arabera jokatu dute: publikitatea, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentziasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, guztia ere borondatearen autonomiarekiko errespetuari eta, hala dagokionean, konfidentziasunari kalterik egin gabe”.

Lege horietan adierazitakoari jarraituz, kontrataziorako barne-jarraibide hauek (aurrerantzean, KBJ) publikitatearen, konkurrentziaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arabera arautuko dira, guztia ere borondatearen autonomiarekiko errespetuari eta, hala dagokionean, konfidentziasunari kalterik egin gabe.

1. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

Aplikazio-eremua

EH Bilduk egindako esleipen-kontratu guztiek bete beharko dituzte derrigorrean KBJ hauek.

Lan-kontratazioari dagokionez, EH Bilduren Lan-hitzarmenean edo berariazko lan-kontratazioko araubide batean xedatutakoaren arabera arautuko da.

Kontratuen araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

EH Bilduk sinatutako kontratu guztiak kontratu pribatutzat hartuko dira eta zuzenbide pribatuan, zibila nahiz merkataritzakoa, xedatutakoaren arabera arautuko dira.

EH Bilduk formalizatzen dituen eta KBJ hauek aplikatu behar zaizkien kontratu pribatuek, araudiari dagokionez, KBJ hauek dituzte arau kontratuak prestatzeari eta esleitzeari begira, eta subsidiarioki aplikatuko dira zuzenbide pribatuko gainerako arauak. Aipatutako kontratu horien ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatua soilik izango dute arau.

Jurisdikzio-ordena zibilak eta merkataritzakoak izango du eskumena aipatutako kontratu horiek prestatzeari, esleitzeari, formalizatzeari, betetzeari eta iraungitzeari buruzko edozein eztabaida eta erreklamazio ezagutzeko eta ebazteko.

Kanpo utzitako kontratuak

Barne-kontrataziorako araubide honetatik kanpo egongo dira ondoko kontratuak (haietako batzuk jada aurreikusita daude Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4. artikuluan):

1. Ondasun higiezin, balore negoziagarrien eta ondasun gorpuzgabeen gainean egindako salerosketa-, dohaintza-, truke- eta errentamendu-kontratuak eta gainerako antzeko negozio juridikoak (ordenagailu-programei buruzkoak salbu; kasu horretan, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat joko dira eta).
2. Arbitraje- eta adiskidetze-zerbitzuei buruzko kontratuak.
3. Tituluak edo bestelako finantza-tresnak jaulkitzea, erostea, saltzea eta transferitzea, bereziki, dirua edo kapitala lortzeko transakzioak eta diruzaintzako eragiketak, bai eta Espainiako Bankuak emandako zerbitzuak ere.
4. Lan-legerian araututako kontratuak. Lan-arloko kontratuak lan-legeriaren arabera arautuko dira. Lan-kontratazioak lan-hitzarmenaren eta/edo EH Bildu Federazioaren barneko lan-kontratazioko araubidearen arabera egingo dira.
5. Kontratazio-organoak konfidentzialtzat aitortutako kontratuak. Konfidentzial-

tasunaren adierazpena egin beharko da Diruzaintza Arloak emandako berariazko ebazpen justifikatuaren bidez, konfidentzialtasun hori galdegin duen sailak eskatuta.

6. Zerbitzu juridikoei, fiskalei, teknikoei, kulturei, lanekoei, kontabilitatekoei eta notarialei buruzko kontratuak.
7. Nazioarteko erakunde baten berariazko prozeduraren bidez egindako kontratuak.
8. Lankidetzaren hitzarmenak, baldin eta haien helburua kontratu baterako aurreikusitakoa ez bada.
9. Hauteskunde-prozesuekin lotutako zerbitzuak xede dituzten kontratuak (prozesu horiek formalki deituta egon ala ez).

2. TITULUA

KONTRATAZIO-ARAUBIDEA

ARAUTZEN DUTEN PRINTZIPIOAK.

Kontrataziorako barne-araubide honen ondoriozko kontratazioek honako printzipio hauek bete beharko dituzte: publizitatea, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.

Printzipio horiek betetzat joko dira, baldin eta jarraian adierazitako arauak betetzen badira.

Publizitate-printzipioa

EH Bilduk publizitate-printzipioa bermatuko du, halakotzat ulertuta operadore ekonomi-

ko eta publiko guztiei kontratazio-prozesuen berri ematea, eta kontratazio-prozesuetan parte hartu ahal izateko behar den informazioa ematea.

EH Bilduk bere webgunean zabalduko du kontratuen informazio garrantzitsua, Gardentasunaren atalean, egokitzat jotzen den beste edozein publizitate-bitarteko gehigarri erabiltzeari kalterik egin gabe.

KBJ hauek Federazioaren webgunean argitaratuko dira, eta berauen bidez araututako kontratuak esleitzeko prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien eskura egongo dira.

Konkurrentzia-printzipioa

KBJ hauen ondorioetarako, konkurrentzia-printzipioa ezarriko da kontratuaren xedea behar bezala betetzeko gaitasuna duten hautagai guztiek, hala ezartzen den prozeduretan, sarbide librea izango dutela bermatzeko jardueren bidez.

Gardentasun-printzipioa

Gardentasun-printzipioa behar bezala betetzat hartuko da EH Bilduk betetzen dituen lizitatzaila izan daitezkeenei kontratazio-prozeduren berri ematea helburu duten jarduketa guztiak, eta hautaketa- eta esleipen-irizpideen eta baztertzeko edo ez esleitzeko arrazoen berri ematen duenean, kontrataziorako barne-araubide honen prozeduren bidez.

Konfidentzialtasun-printzipioa

Konfidentzialtasun-printzipioa betetzat hartuko da EH Bilduk eta haren kontratazio-organoei eta kontratazio-prozeduretan esku hartzen duten pertsonen konpromisoa hartu dutenean ez zabaltzeko lizitatzailleek konfidentzialtzat izendatu duten informazioa. Berreziki kontuan hartuko dira sekretu komertzialei edo teknikoei buruzko informazioa eta eskaintzen alderdi konfidentzialak. Ez da informazio konfidentzialtzat hartuko lizitatzailleak KBJ hauetan araututako printzipioak bermatzeko argitara eman behar duena.

Era berean, kontratistak isilpean gorde beharko du kontratua egikaritzearen ondorioz ezagutzen duen informazio guztia, bai eta, hala badagokio, haren ondoriozko emaitzak ere. Ezin izango du informazio hori erreproduzitu, zabaltu edo hirugarrenei jakinarazi lizitazio-prozesuan zehar, ez prozesu horren ondoren, ez kontratuaren indarraldian, ez eta kontratua amaitu ondoren ere.

EH Bilduk behar diren neurri guztiak hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa (DBLO) behar bezala betetzeko, kontratuetan barne hartuta DBLO betetzeko beharrezkoak diren klausula guztiak.

Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa

Kontrataziorako barne-araubide honen prozedurek lizitatzaille guztien tratamendu-berdintasuna eta justifikatutako arrazoirik gabe ez diskriminatzea bermatuko dute. Ezin izango da egin besteen aldean lizitatzaille jakin batzuei mesede egitea dakarren jarduketarik.

3. TITULUA KONTRATAZIO-ORGANOAK

Barne-antolaketako Saila izango da kontratazio-organoa, hura baita alderdia kudeatzeko eta administratzeko organo eskuduna, eta sail hori arduratuko da alderdiaren ondasunak eskuratzeaz, administratzeaz, eskualdatzeaz eta zergapetzeaz.

Honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Kontratazio-espeditentea onartzea eta oinarrien agiria (kontratu-klausulak) eta oinarri teknikoen agiriak sortzea.
2. Eskaintzak aztertzea.
3. Ezohiko edo neurritz kanpoko eskaintzak baztertzea.
4. Esleipena ebaztea eta lizitatzaillei erantzutea.
5. Kontratuaren jarraipena eta interpretazioa.

Honako kide hauek izango ditu kontratazio-organook: zuzendaritza nagusiko arduradun bat, diruzaintzako arduradun bat eta komunikazioko arduradun bat.

4. TITULUA BATERAEZINTASUNAK

Kontratu bat esleitzeko hautagai den edozein enpresarekin ahaidetasuna edo harremana duen ezein langilek ez du parte hartuko kontratazio-prozedura bat hautatzen, esleitzen edo izapidetzen.

5. TITULUA KONTRATISTAK

EH Bilduk kontratuak egin ahal izango ditu Europako Erkidegoan jarduteko gaitasuna duten pertsona juridiko edo naturalekin, publikoak zein pribatuak izan, baldin eta jarduteko gaitasuna badute eta kontratua formalizatzeko unean behar den kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badituzte. Berariaz baztertuta daude SPKLn aurreikusitako kontratatzeke debekuren bat duten pertsonak.

EH Bilduk lehentasuna emango die beren kode etikoek jasotzen dituzten printzipioak, balioak eta jokabide-kodeak betetzen dituzten kontratistei, eta printzipio horiek bateragarriak izan beharko dute EH Bilduren Kode Etikoaren printzipioekin, balioekin, konpromisoekin eta jokabideekin.

Era berean, EH Bilduk baztertu ahal izango ditu, berdintasun printzipioa urratu gabe, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako, Behe-Nafarroako, Lapurdiko eta Zuberoako (Euskal Herria) oinarrizko eskubideak, lan-eskubideak eta hizkuntza-eskubideak urratzen dituzten kontratistak. Lehentasuna emango die gizartearen, ingurumenaren, gobernu onaren eta gardentasunaren arloetan erantzukizun sozial korporatiboko balioak beren gain hartzen dituzten hornitzaileei. Horren harira, aipatu behar da EH Bilduk kontratistak baztertu ahal izango dituela, baldin eta haien enpresetan emakumeen eta gizonen tratua eta aukera-berdintasunerako planak eta indarkeria matxistaren aurkako protokoloak indarrean ez badaude. Aipatutako salbuespen horiek guztiak behar bezala

arrazoitu beharko dira jasotako eskaintzak aztertzeke edo ebazteke fasean.

6. TITULUA KONTRATU-MOTAK

Zuzeneko esleipen bidez adjudikatutako kontratuak.

Zenbatekoa 1 euro baino handiagoa eta 8.264,00 euro baino txikiagoa, gehi BEZa, zerbitzuak, hornidurak nahiz obrak izan.

Kontratu txikiak.

Zenbatekoa 8.264,00 euro edo handiagoa eta 14.876,00 euro baino txikiagoa, gehi BEZa, zerbitzuetan eta horniduretan.

Zenbatekoa 8.264,00 euro edo handiagoa eta 36.363,00 euro, gehi BEZa, baino txikiagoa obretan.

Kontratu arruntak.

Zenbatekoa 14.876,00 euro gehi BEZa zerbitzu eta horniduretan.

Zenbatekoa 36.363,00 euro edo handiagoa, gehi BEZa, obretan.

Presako kontratuak.

Premia atzeraezina duten kontratuak, edo behar bezala justifikatutako arrazoiengatik azkar esleitu behar direnak, zenbatekoa edozein izanda ere.

Esparru-hitzarmena duten kontratuak.

Baldintzak finkatzeko xedea duten kontratuak; aldi jakin batean kontratu-tipologia jakin bati egokitu beharko zaizkio baldintza horiek.

Hauteskunde-kanpainetako gastuetarako kontratuak.

Hauteskunde-kanpainekin lotutako kontratazioak.

Kontratu konfidentzialak.

Ondoren balioetsitakoa eta aipatutakoa xede duten kontratuak, zenbatekoa edo iraupena edozein dela ere.

7. TITULUA
KONTRATAZIO-PROZEDURAK

Zuzenean esleitzeko espedientea izapidetzea.

BALIOA	Prozedura honen bidez arautuko dira 8.264,00 euro (+ BEZa) baino gutxiagoko kontratazioak, zerbitzuak, hornidurak nahiz obrak izan.
KONTRATAZIO-ORGANOA	Barne-antolaketako zuzendaritza.
KONTRATUA PRESTATZEA	Ez du oinarrien agiririk behar.
ESPEDIENTEA ONARTZEA	Jarduteko gaitasuna duen eta lanbide-gaikuntza duen edozein hornitzaileari edo kontratistari egin ahal izango zaio parte hartzeko gonbita.
PUBLIZITATEA	Ez da beharrezkoa.
ESLEIPENA	Jarduteko gaitasuna duen eta lanbide-gaikuntza duen edozein hornitzaileari edo kontratistari esleitu ahal izango zaio.

Zuzenean esleitzeko prozedura modu honetan egingo da:

1. Eskaera egiten duen zuzendaritzak edo sailak dagokion inprimakia beteko du (1. eranskina):
 - Kontratuaren xede diren prestazioen beharra, ezaugarriak eta balio zenbaitetsia azalduko ditu.
2. Barne-antolaketako zuzendaritzak dagokion inprimakia beteko du (1. eranskina):
 - Eskaera egin duen sailak adierazitako premiaren txostena onartu edo ezetsi egingo du.
 - Gastua baimendu edo ukatu egingo du, aurrekontu nahikoa dagoela egiaztatu ondoren.
3. Gastua onartzen eta baimentzen bada, barne-antolaketako zuzendaritzak dagokion inprimakia beteko du (2. eranskina):
 - Zenbatekoaren arabera, egokitzat hartzen dituen hornitzaileak gonbidatuko ditu.
 - Jasotako eskaintza edo eskaintzak balioetsiko ditu.
 - Erabakia hartuko du eskaintza onuragarrienean eta/edo KBJ hauen IV. tituluaren ezarritakoan oinarrituta.
 - Hornitzaileari zuzenean esleitu ondoren, baldin badaude.
 - Esleipena jakinaraziko du eta kontratua formalizatuko du.

EH Bilduren estatutuen arabera eta, zehazki, V. kapituluan (Ekonomia- eta ondare-arau-bidea) ezarritakoaren arabera, EH Bilduko finantza- eta ekonomia-arduradunak izango dira faktura eskatu eta ordainduko dutenak.

Kontratu txikiaren espedientearen izapidetzea

BALIOA	Zenbatekoa 8.264,00 euro edo handiagoa eta 14.876,00 euro baino txikiagoa, gehi BEZA, zerbitzuetan eta hornidurretan. Zenbatekoa 8.264,00 euro edo handiagoa eta 36.363,00 euro baino txikiagoa, gehi BEZA, obretan
KONTRATAZIO-ORGANOA	Barne-antolaketako zuzendaritza.
KONTRATUA PRESTATZEA	Ez du oinarrien agiririk behar
ESPEDIENTEA ONARTZEA	Kontratazio-mahaia. Ahaleginak egingo dira gutxienez hiru eskaintza lortzeko. Jarduteko gaitasuna duen eta lanbide-gaikuntza duen edozein hornitzaileari edo kontratistari esleitu ahal izango zaio.
PUBLIZITATEA	Ez da beharrezkoa.
ESLEIPENA	Jarduteko gaitasuna duen eta lanbide-gaikuntza duen edozein hornitzaileari edo kontratistari esleitu ahal izango zaio

Zuzenean esleitzeko prozedura modu honetan egingo da:

1. Eskaera egiten duen zuzendaritzak edo sailak dagokion inprimakia beteko du (1. eranskina):
 - Kontratuaren xede diren prestazioen beharra, ezaugarriak eta balio zenbaitetsia azalduko ditu.
2. Barne-antolaketako zuzendaritzak dagokion inprimakia beteko du (1. eranskina):
 - Eskaera egin duen sailak adierazitako premiaren txostena onartu edo ezetsi egingo du.
 - Gastua baimendu edo ukatu egingo du, aurrekontu nahikoa dagoela egiaztatu ondoren.
3. Gastua onartzen eta baimentzen bada, antolaketako zuzendaritzak dagokion inprimakia beteko du (2. eranskina):
 - I. Zenbatekoaren arabera, eta ahal den neurrian, hainbat hornitzaileari egingo die parte hartzeko gonbita eta kontratazio-organoak baldintzak negoziatuko ditu.
 - Jasotako eskaintza edo eskaintzak balioetsiko ditu.
 - Eskaintza onuragarrienean eta/edo KBJ hauen IV. tituluan ezarritakoan oinarrituta hartuko du erabakia.
 - Hornitzaileari zuzenean esleituko dio, egin diren eskaintzak aztertu ondoren, baldin badaude.
 - Esleipena jakinaraziko du eta kontratua formalizatuko du.

Kontratu txikiak ez dira argitaratuko, eta ez dute oinarrien agiririk beharko. Espedientea izapidetzeko, gastua aldez aurretik onartu eta dagokion faktura aurkeztu beharko da. Kontratu txikietan ez da gutxieneko eskaintza-kopururik ezarri, baina ahal den guztia egingo da gutxienez hiru eskaintza lortzeko. Jarduteko gaitasuna duen eta prestazioa egiteko behar den lanbide-gaikuntza duen edozein hornitzailek edo kontratistak parte hartu ahal izango du eta halako edozeini zuzenean esleitu ahal izango zaio.

Kontratu txikien iraupena ez da urtebetetik gorakoa izango.

EH Bilduren estatutuen arabera eta, zehazki, V. kapituluan (Ekonomia- eta ondare-arau-bidea) ezarritakoaren arabera, EH Bilduko finantza- eta ekonomia-arduradunak izango dira faktura eskatu eta ordainduko dutenak.

Kontratu arruntaren espedienteak izapidetzea.

BALIOA	Zenbatekoa 14.876,00 euro edo handiagoa, gehi BEZa, zerbitzuetan eta horniduretan. Zenbatekoa 36.363,00 euro edo handiagoa, gehi BEZa, obretan.
KONTRATAZIO-ORGANOA	Barne-antolaketako zuzendaritza.
KONTRATUA PRESTATZEA	Eskaera egin duen zuzendaritzaren edo sailaren premiei buruzko txostena. Kreditu-baimena. Oinarri administratibo edota teknikoen orria
ESPEDIENTEA ONARTZEA	Kontratazio-mahaia.
PUBLIZITATEA	Webgunean argitaratuko da lizitazio-iragarkia
ESLEIPENA	Oinarrien agirian ezarritakoaren arabera, gehienetan prozedura negoziatua edo mugatua egingo du kontratazio-organoak.

Prozedura arrunta modu honetan egingo da:

- Barne-antolaketako sailari eskaera egitea inprimakia beteta (1. eranskina).

Edozein zerbitzu edo obra kontratatzeko interesa duen sailak inprimaki bat bete beharko du barne-antolaketako zuzendaritzari zuzendua. Inprimaki hori txosten modukoa izango da, eta honako hauek adieraziko dira bertan:

- I. Eskaeraren data.
- II. Deialdia egin duen saila.

III. Aurrekontu zenbatetsia, BEZarekin eta gabe.

IV. Eskaeraren eta kontratazioak bete beharreko premien azalpen zehatza.

- Gastua onartzea inprimakia beteta (1. eranskina).

Aipatutako txosten hori jasotakoan, barne-antolaketako zuzendaritzak erreferentzia-zenbaki bat esleituko dio eskaera-espeditari, eta egiaztatuko du Hegoaldeko Mahai Politikoak onartutako urteko aurrekontuaren barruan badagoe-la aurrekontu nahikoa eskatutako gastu hori onartu ahal izateko. Aurrekontu nahikorik ez badago, idazkaritza nazionalak onartu beharko du aurrekontua, eta erabakiaren berri emango dio Hegoaldeko Mahai Politikoari.

- Kontratazio-mahaia.

Barne-antolaketako saila zuzentzen duen pertsonak kontratazio-mahaia osatuko du, kasuan kasuko saileko zuzendaritzako hiru kiderekin gutxienez. Salbuespen gisa, laugarren pertsona bat izendatu ahal izango da, esperientzia teknikoa duena lizitazioaren beharren konplexutasuna aintzat hartuta.

Kontratazio-mahaiak erabakiko du prozedura arruntarekin jarraitu edo beste prozedura egokiago batekin segitu.

- Oinarrien agiria, kontratuaren klausulak eta preskripzio teknikoak sortzea formularioa beteta (2. eranskina).

Kontratazio-mahaiak oinarrien agiria, kontratuaren klausulak eta preskripzio

teknikoak onartuko ditu, sail interesdunak bidalitako txostenean oinarrituta.

- Kontratazio-espeditaria irekitzea, publikitatealdia eta eskaintzak jasotzea

Espeditaria irekiko da eta lizitazioaren iragarkia EH Bildu Federazioaren webgunean argitaratuko da.

Iragarkia webgunean edukiko da gutxienez 8 egun naturalez jarraian. Epe horretan lizitatzailleek eskaintzak egin ahal izango dituzte, iragarkian xehatutakoari jarraituz.

- Eskaintzen azterketa.

Kontratazio-mahaiak eskaintzak aztertuko ditu, eta beti berrmatuko du argitzeko eta zuzentzeko epe bat.

- Esleipena ebatzea eta lizitatzaillei erantzutea.

Kontratazio-mahaiak esleipena ebatziko du eta lizitatzaille guztiei jakinaraziko die, eta EH Bilduren webgunean ere argitaratuko du.

Kontratazio-mahaiak lizitazioa esleitu gabe utzi ahal izango du eskaintza behar bezain egokiak aurkeztu ez badira, eta kontrataziorako barne-araubide honetan zehaztutako beste prozedura bat jarraitzea aukeratu ahal izango du.

- Kontratua formalizatzea

Behin esleipena egin ondoren, kontratazio-mahaiak federazioaren legezko ordezkariari jakinaraziko dizkio kontratuaren nondik norakoak, kontratua formalizatu eta sinatzeko. Kontratuak

zehatz-mehatz jaso beharko du kasuan kasuko espedientearen kontratu-klausuletan eta preskripzio teknikoetan adierazitakoa, bai eta lizitatzailer esleipendunak egindako eskaintzan adierazitakoa ere.

- **Ordainketa**

EH Bilduren estatutuen arabera eta, zehazki, V. kapituluaren (Ekonomia- eta ondare-araubidea) ezarritakoaren arabera, EH Bilduko finantza- eta ekonomia-arduradunak izango dira faktura eskatzeari eta ordaintzeari ekingo diotenak.

- **Jarraipena eta interpretazioa.**

Kontratazio-mahaiaren esku geratuko da kontratuaren jarraipena, bai eta haren interpretazioa ere.

- **Publizitatea**

Lizitazioaren izapidetzearen garapena webgunean argitaratuko da, inprimaki moduan (2. eranskina), bai eta esleipena ere.

Presako kontratuen espedienteak izapidetzea.

BALIOA	Zenbatekoa 14.876,00 euro edo handiagoa, gehi BEZA, zerbitzuetan eta hornidurretan Zenbatekoa 36.363,00 euro edo handiagoa, gehi BEZA, obretan
KONTRATAZIO-ORGANOA	Zuzendaritza nagusia.
KONTRATUA PRESTATZEA	Eskaera egin duen zuzendaritzaren edo sailaren premiei buruzko txostena. Zuzendaritza nagusiaren baimen arrazoitua.
ESPEDIENTEA ONARTZEA	Kontratazio-mahaia. Ahaleginak egingo dira gutxienez hiru eskaintza lortzeko.
PUBLIZITATEA	Webgunean argitaratuko da lizitazio-iragarkia
ESLEIPENA	Jarduteko gaitasuna duen eta lanbide-gaikuntza duen edozein hornitzailei edo kontratistari esleitu ahal izango zaio, eta esleipenaren arrazoia adieraziko da.

Premia atzeraezina duten kontratuetan, edo behar bezala justifikatutako arrazoiengatik azkar esleitu behar direnetan, kasuan kasuko espedientearen kontratazio-mahaiak erdira murriztu ahal izango ditu gutxieneko publizitate-aldia eta eskaintzak jasotzeko epea.

Kasu horietan, EH Bilduren zuzendaritza nagusiak unean-unean baimendu ahal izango du kontratu bat zuzenean esleitzea,

kontratazio-espeditentea izapidetu beharrik gabe. Baimen horrek presaren arrazoia jaso beharko du, bai eta premia eta kontratatzeko kreditu nahikoa dagoela justifikatzen duen agiria ere.

Prozedurak aukera ematen duen neurrian, hiru eskaintza lortu beharko dira.

Gehienez ere zazpi egun naturaleko epean erabaki horren berri emango dio Hegoaldeko Mahai Politikoari.

Prestazioak gauzatzen hasteko epea ezin izango da hilabete baino luzeagoa izan, erabakia hartzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori gaindituz gero, prozedura arrunta izapidetu beharko da prestazio horiek kontratatzeko.

Esparru-hitzarmena duten kontratuen espeditenteak izapidetzea.

EH Bilduk hornitzaile batekin edo batzuekin sinatu ahal izango ditu esparru-hitzarmenak baldintza egokiak finkatzeko; aldi jakin batean kontratu-tipologia jakin bati egokitu beharko zaizkio baldintza horiek.

Esparru-hitzarmen baten bidez aurreikusitako jarduera bakoitzari esleitutako hornitzaileen kopurua gutxienez 3 hornitzailekoa izango da, ahal bada bederen.

Esparru-hitzarmenen iraupena ezin izango da inola ere 4 urtetik gorakoa izan.

Esparru-hitzarmen bidezko kontratazioak honako prozedura honen arabera arautuko dira:

1. Barne-antolaketako sailak erabakiko du zer jarduera, hornidura edo zerbitzu arautuko den esparru-hitzarmen bidez, eta esparru-hitzarmen bakoitza arautuko duten klausulak finkatuko ditu.
2. Barne-antolaketako sailak jarduera egin edo zerbitzua eman dezaketen hornitzaileekin negoziatuko du, eta hitzarmenari atxikitzea proposatuko die interesdunei.
3. Esparru-hitzarmena idatziko da eta EH Bilduren legezko ordezkariak sinatuko du.
4. Urtero azterketa bat egingo da sinatutako hitzarmenen egokitasunari, lan-bolumenari eta egoerari buruz, eta kontratistei berme ekonomikoak eskatuko zaizkie, hitzarmenak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko.

Konfidentzialtasun-arrazoiengatik, lan artistikoengatik edo jabetza-eskubideengatik zuzenean esleitzeko espeditenteak izapidetzea.

Prozedura horren bidez arautuko dira, zentzuzkoa edo iraupena edozein izanik ere, gutxienez honako kasu hauetako bat xede duten kontratuak:

- Izaera artistikoa duten lanak.
- Azterketa soziologikoak eta inkestak.
- Aholkularitza juridikoa eta/edo fiskala.
- Datu-baseen tratamendua, eta DBLOrekin lotutako edozein esparru.
- Informazioa eskuratzea, prentsa eta hedabideen harpidetzea.

- Material ukiezina eta jabetza-eskubideak.
- Publizitatea prentsan, webgunean, irrastian eta kanpoan.
- Egoitzen, langileen eta kargu publikoen segurtasuna.
- Espazio publikoak erreserbatzea.
- Afiliatuen prestakuntzarekin eta garapen intelektualarekin zerikusia dutenak.
- Estrategia politikoarekin eta boto-eskaerarekin lotutako kontratu guztiak.

Kasu horietan, idazkaritza nazionala arduratuko da kontratuaren gastua eta xedea onartzeaz, Hegoaldeko Mahai Politikoak onartutako urteko aurrekontuan oinarrituta. Idazkaritza nazionalak, zuzendari nagusiaren edo hark eskuordetutako pertsonaren bidez, alderdiaren legezko ordezkaria proposatuko du kontratua sinatzeko.

Hauteskunde-kanpainekin lotutako prestazioak kontratatzeke espedienteak izapidetzea.

Hauteskunde-kanpainekin lotutako kontratazioetat hartuko dira kontratuen helburua baldin bada, zuzenean edo zeharka, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikulua edo bestelakoren baten arabera hauteskunde-prozesu baten esparruan Alderdiaren hautagai-zerrenden aldeko botoa sustatzea.

Horrelako prestazioak direnean, hau da, beste batzuekin lehian dagoen iritzi politiko jakin bati lotutako prestazioak, kontratista ezin da KBJ hauen printzipioak aplikatuta

aukeratu. Arrazoi horregatik, publizitate- edo dibulgazio-kanpainei, ekoizpen digitalari edo propaganda-edukiak sortzeari, lan demoskopikoei eta abarri buruzko zerbitzuak KBJ hauen aplikazio-eremutik kanpo utzi ahal izango dira, antolamendu-, estrategia- eta eraginkortasun-premiak direla eta.

EH Bilduko zuzendari nagusiak eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren arduradunek zehaztuko dituzte, inguruabarren arabera eta lehentasunez jarraibide hauetan ezarritako irizpideari jarraituz, hauteskunde-kanpainako gastu horiek eta boto-eskaeraren ondoriozko gastuak.

Hauteskunde-garaietako kontratazioak Alderdi Politikoaren Finantzaketari buruzko Lege Organikoan aurreikusitako arauari eta ezarritako mugei lotuta daude, eta, azken buruan, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 130. artikulua arabera, hauteskunde-gastuak direnean, berriazko hauteskunde-deialdiaren bidez horretarako izendatutako hauteskunde-administratzaileak baimendu beharko ditu.

8. TITULUA

AZKEN XEDAPENAK

1. Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan, martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoak emandako bertsioan, xedatutakoaren babesean idatzi dira jarraibide hauek.
2. Alderdi politikoei aplikatu beharreko araudian xedatutakoaren aurka ez dagoen edo harekin kontraesanean ez dagoen guztian aplikatuko dira Kontratazio-jarraibideak.
3. Kontrataziorako barne-araubide hau EH Bildu federazioaren webgunean argitaratuta edukiko da.
4. Kontratuen zenbatekoaren muga aipatzen denean, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) zenbateko horretatik kanpo dagoela ulertu behar da.
5. Jarraibideak zuzendari nagusiak eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren arduradunek aldatu ahal izango dituzte, eta horiek garapenerako jarraipideak emateko ere gaituta egongo dira, baldin eta Hegoaldeko Mahai Politikoari jakinarazi bazaio.
6. Kontrataziorako barne-araubide hau ezartzen denean EH Bildu Federazioak indarrean dituen kontratuak berrikusi ahal izango dira, kontrataziorako barne-araubide honek agintzen duenaren arabera, gehienez ere 2 urteko epean.
7. Indarrean hastea. Kontrataziorako jarraibide hauek EH Bilduren Ekonomia eta Finantza Arloak onartu eta hurrengo egunean hasiko dira indarrean, eta Zuzendaritza Nagusiaren oniritzia eduki beharko dute, zeinak Hegoaldeko Mahai Politikoari jakinarazi beharko dizkion.